

Kattalin Zurutuza Eskisabel

F maila • 2 saria

Nire izena Kattalin da, 9 urte ditut eta Andramendi ikastolako ikaslea naiz. Handitan arkeologoa edo al baitaria izan nahiko nuke. Txikitan nire ahizpa saria jasotzera joaten zen, eta nire buruari galdetzen nion ea ni ere hara gora iristeko gai izango ote nintzen, eta aurren hemen nago. Espero dut nire ipuina gustatu izana, eta jazarpena sufritzen duten umeek aske izateko hegoak aurkitzea.



TXORI IZAN NAHI DUT

Herri txiki batean bizi zen Eneko. Ilea txokolatea bezain marroia zuen eta begiak berriz, berde- berdeak. Bera bizi zen herria oso alaia zen ,denak poz-pezik bizi ziren, Eneko izan ezik. Eneko beti triste zegoen. Gauzak berak erabakiko balitu, egun osoa logelan sartuta pasako luke. Ez zihoan pozik ikastolara,han burla egiten baitzioten. Kiratsa zuela, oso gizona zegoela... Etxean ere ez zen eroso sentitzen, ikastolako irainak buruan bueltaka baitzituen. Kalera irteteko beldur zen, gelakideak topatu eta ea berriro ere iseka egiten hasiko ote ziren. Ostirala iristeko irrikan egoten zen, astea bukatu eta segituan etxera joateko. Igandea iristean berriz, segundoak kontatzen ibiltzen zen ea zenbat falta zen astelehen goizerako...

Baina Enekok ezin zuen denbora geldiarazi eta horregatik iristen zen horrenbeste gorroto zuen astelehena.

Andereñoak gauzak arbelean idazten zituen bitartean (ikasleei bizkarra ematen ari zenean) beste ikasleek hori aprobetxatuz , Enekor irainak botatzeko aprobetxatzen zuten :

- Tontolapiko bat zara,Eneko!!!!

- Burua sandia bat baino handiagoa duzu !!!

- Hori, hori!!!

Eta burlez betetako papertxo txikiak botatzen zizkieten, janari hondarrak.... Denek ez bazuten egiten ere denak isiltzen ziren irakaslearen aurrean.

Enekorentzat ikastolara joatea jarri ziezaioketen zigorrik handiena zen. Jai zituen egun guztiak logelan sartuta ematea gustatzen zitzaion baina 2018ko Urriaren 6an bere logelako leihoan txori bat pausatu zen.

Eneko begira gelditu zitzaion, bere barrurako haxe pentsatu zuen :

“Txori izan nahi dut.

Libre izan nahi dut.

Libre ,txori baten antzera”

Eta bat batean txoriak bere barrua entzun izan balu bezala kantuan hasi zitzaion baina berak ulertzeko moduan:

- Txio- txio.. Eneko....zure zorigaitzetik aske izan nahi baduzu...txio -txio.. zure neurriko “hego” batzuk beharko dituzu.- eta hegan alde egin zuen txoriak.

“Nire neurrirako hegoak? Eta horiek non lortuko ditut?” Pentsatu zuen Enekok eta burua astintzen hasi zen.

Burdinazko hegoak, lumazko hegoak, txokolatezkoak egitea ere pentsatu zuen. Etxeko herramienta kaxa hartu eta han ibili zen hiruzpalau astetan hegoak eraikitzen baina alperrik! Ez zuen ezer egitea lortu.

Gurasoak kezkatuta zeuden azken boladan Enekok egun osoa garajea ematen zuelako.

Afalordu batean gurasoek galdetu zioten:

- Zer egiten duzu egun osoan garajea? Lehen logelan egoten zinen eta orain garajea. Zer gertatzen zaizu?
- Hegoak eraikitzen ari naiz.
- Hegoak? Zertarako?
- Aske izateko, aske izan nahi dut, txoriak bezala.

Enekok, urduri, gurasoei kontatu zien ikastolan bizi zuen amets gaiztoa. Negarrez amaitu zuen eta orduan sentitu zuen bere bizkarrean hegoak ateratzen ari zitzaizkiola, arinago eta askeago sentitzen zuen bere gorputza. Hori zen bere herramienta kaxa, kontatzea.

Gurasoek irakaslearekin hitz egin zuten eta poliki poliki gauzak moldatzen joan ziren Enekorentzat eta hegoak guztiz zabaltzea lortu zuen.

Eneko bizitzan lehen aldiz pozik sentitzen zen, txori sentitzen zen, libre.